

## PRENTSA-OHARRA

# Kondestable hiriko erdiguneko zinema-areto bihurtuko da larunbat arratsaldetan, hainbat film-zikloren doako emanaldiekin

Udalak eta Bilbao Arte Fundazioak hitzarmen bat sinatu dute elkarrekin programatzeko ziklo horiek; lehena, Ingmar Bergman zuzendariari buruzkoa

Apirilaren 28tik aurrera Kondestablearen jauregiak doako zinema-saioak eskainiko ditu larunbatetan, 19:30ean. Emanaldiei hasiera emateko, Ingmar Bergman zuzendari suediarren filmografiari buruzko ziklo bat egingo da, haren jaiotzaren urteurrenaren harira. Ekimen hau Iruñeko Udalaren eta Bilbao Arte Fundazioaren arteko lankidetzaren ondorioz sortu da; izan ere, hitzarmen bat sinatu dute gaur goizean, zinema-zikloak elkarrekin programatzeko.

Kultura eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkari Maider Belokik eta Bilbao Arte Fundazioko zuzendari Juan Zapaterrek gaur goizean izenpetu dute lankidetzaren hitzarmena, non jasotzen baita zenbait zinema-ziklo elkarrekin antolatuko dituztela 2018an. Ziklo bakoitzak 25 izenburu izan beharko ditu, gutxienez, eta Iruñeko Kondestablearen jauregian eta Bilboko Bilbao Arte fundazioko Art House Zinema aretoan proiektatuko dira. Bilbao Arte Fundazioa ekoizpen artistikoko zentro bat da, Bilboko Udaleko Kultura Sailaren menpe dago, eta erakusketak, hitzaldiak eta zinema-emanaldiak antolatzea du xede, besteak beste.

Hori horrela, Kondestablearen jauregiko ekitaldi-aretoa hiriko erdigunean kokaturiko zinema-areto bihurtuko da, 140 lagunendako lekua izango du eta bertan programatzeko dira zinema-ziklo eta -saioak. Ohiko programazio hori Bergmani buruzko ziklo batekin hasiko da, Bilbao Arterekin adostutako elkarlanaren barruan txertatuko, eta udaberri eta udazkenean garatuko da. Udan eta neguan beste zenbait ziklo egingo dira. Ekimen honen bitartez herritarren eskaerari erantzuten zaio, halako eskaera bat ezen filmak proiektatzeko toki bat aldarrikatzen baitzuen Iruñeko erdigunean, azken urteotan Zabalguneko zinema-areto guztiak itxi ostean.

### Udalak eta Bilbao Arte Fundazioak hartutako konpromisoak

Iruñeko Udalak banatzaileei filmak erakusteko eskubideak ordaintzeko konpromisoa hartu du, kopuruak gehienez ere 10.000 euro + BEZ jotzen duen bitartean. Bilbao Arte Fundazioak, bere aldetik, honako betebeharrak izango ditu: programazioaren diseinua adostea Udalarekin; banatzaileekin filmak erakusteko eskubideak eskuratzeko egin beharreko kontratuak kudeatzea;





programazioa hedatzeko argibide-testuak prestatzea; eta banatzaileei filmak erakusteko eskubideak ordaintzea, gehienez ere 6.500 euro + BEZ bitarte.

Udala eta Bilbao Arte Fundazioa nor bere hiriko emanaldiak antolatzeaz arduratuko dira, honako alderdiez bezainbatean: eguna, ordua, gonbidapenen kudeaketa, leku-kopuruaren kontrola, aretoa sarbidea... Iruñearen kasuan, emanaldiak Kondestableko ekitaldi-aretoan izango dira, larunbatetan, 19:30ean; eta Bilbon, astelehenetik ostiralera, Bilbao Arte Fundazioaren programazioaren barruan. Halaber, erakunde bakoitzak bere gain hartuko ditu zikloak eta emanaldiak hedatzeko materialen prestaketa-, diseinu- eta ekoizpen-lanak. Material horietan bi erakundeen arteko lankidetzak aipatu beharko da, bi erakundeen logoak paratuta. Hitzarmenean jasotzen da emanaldietarako sarrerak doakoa izan behar duela.

### **Ingmar Bergmanen filmografiari buruzko zikloa**

Ingmar Bergman zuzendari suediarra izango da elkarlan honen lehenengo zikloaren protagonista, jaio zela 100 urte betetzen baitira 2018 honetan. Haren filmografia luzeko 19 titulu proiektatuko dira guztira, apiriletik azarora (udan ez da emanaldirik egongo). Sarrera doan izango da, baina gonbidapena hartu beharko da aldezturik, saioa noiz eta ordubete lehenagotik.

Zikloa heldu den larunbatean abiatuko da, hilaren 28an, *Un verano con Mónica* filmaren proiektioarekin. Maiatzeko larunbatetan Kondestablearen ekitaldi-aretoan jarriko dira ikusgai *Noches de circo*, *Sueños*, *Sonrisas de una noche de verano* eta *El séptimo sello*, hilaren 5, 12, 19 eta 26an, hurrenez hurren. Ekainerako hiru saio programatu dira, hilaren 2, 9 eta 16an: *Fresas salvajes*, *El rostro* eta *El manantial de la doncella*. Azken horrek Oscar saria irabazi zuen 1961ean, ingelesez besteko pelikula onenari emandakoa.

Zikloari jarraipena emango zaio irailean, beste hiru filmerekin: *Como en un espejo*, Oscar sariduna baita ere, 16an; *El silencio*, 23an; eta *Persona*, 29an. Urriko lau larunbatetan honako hauek proiektatuko dira: *La hora del lobo*, *La vergüenza*, *Pasión* eta *Gritos y susurros*. Azkenik, azaroan, zuzendari suediarrek filmatutako azken lauak ikusi ahalko dira: *Sonata de otoño*, *Documento sobre Farö*, *De la vida de las marionetas* eta *Fanny y Alexander*, ingelesez besteko film onenari emandako Oscar saria eskuratu zuen zuzendariaren hirugarren film luzea.

Iruñean, 2018ko apirilaren 23an

